

Kontakt Inprobisazio FORMAKUNTZA BILBO

2019/2021 Ikasturtea

Zuzendaritza Cristiane Boullosa, zuzendaritza-kidea Diana Bonilla
Bideratzailea EHKIE www.ehkie.eus (Itziar Camiña eta Oihana Picaza)
Info: fcibilbao.ehkie@gmail.com

Zer da?

Bilboko oinarrizko Kontakt inprobisazio (aurrerantzean K.I.) formakuntza planak Euskal Herrian KI formakuntzaren eskeintza ber-hartu eta zabaldu nahi du. KI-aren praktikaren aldeko apostua da, Madrideko KIFormakuntzaren moduan, KI-aren oinarrien ezagutzara, bere ikuspuntu eta aplikazio anitzetara eta formaren garapenaren sustatzera bideratuta doa.

KI erabilgarritasun eta onura anitz eta zabaleko praktika da, dantza eta mugimenduaren profesionalentzako eta baita bere fisikalidadea garatu eta beste pertsonekin harremantzeko eskeintzen dituen aukerak ezagutu eta gozatzeko interesa duen edozein pertsonarentzat. Formakuntza honek KI-a ulertzeko tresnak eskeintzen ditu, ondoren maila pertsonalean ikasleari interesatu ahal zaizkion esparruetan praktikaren garapen aberats eta oso bat ahalbidetuz.

Kurtsoaren edukiak honako hauek bermatzen ditu: KI-aren teknikaren oinarrizko ezagutza eta erabilera, horretarako gaitasun fisikoen garapena, mugimenduaren behaketa eta analisia, gorputzari eta mugimenduari KI-tik erreferentzia egiteko hiztegi eta hizkuntza egokia, historiaren ezagutza eta praktikaren eduki filosofia.

Gaitasun hauek bereziki garrantzitsuak dira alor ezberdinetako profesional eta ikasleentzako: Dantza, gorputz heziketa, kirola, eskuzko terapiak (fisioterapia, masajea), gorputz terapiak, psikoterapia eta arte eszenikoen eta mugimenduaren edozein alorretarako.

Nola garatzen da?

2 urtetako programa batetan egituratua dago, urtero asteburuko 9 moduloz, material teorikoz eta online jarraipenaz osatua.

Edukiak:

1. Urtea.

- Praktikarako prestakuntza fisiko egokia luzaketa, tonifikazio, mobilizazio eta masajeen bidez.
- KI-rako oinarritzko gaitasunen garapena, ondorengo kontzeptuetatik: Orientazio esferikoa, pixuaren kudeaketa, momentum-aren aplikazioa, bulkada/inertzia/bultzada, alderantzikatzeak, euskarri/hegalari ereduen ezagutza, kontaktu azaleraren kontzientzia, dantza txikia...
- Round Robin-a bezalako praktikak ahalbidetuko dituzten oinarri parte-hartzaileak.
- Mugimendu eta bizipen mailan ikuspegi aldaketen behaketa eta praktikaren ulermena.
- KI-aren kontextu historiko eta filosofikoaren inguruko ezagutza eta ausnarketa, bere hasieretatik gaur eguneraino. Mugimenduaren praktika osasuntsu eta gozagarri bat sustatzea.

2. Urtea.

- KI-aren oinarrien jardunbidea energia kudeaketatik.
- Teknikaren integrazioa euskarri/konfiantza kontzeptuetatik.
- Mugak/patroiak, gatazkak, laga/bultza, fluxua/jarraitasuna, jolasa/elkarbanatu.
- Gaitasun fisikoak indartu grabitatea eta orientazio esferikoarekin harremandutako alderdietatik.
- Harreman eta espazio konstelazioak (bakarka, bikotea, hirukotak, taldea eta espazioarekin harremana)
- Praktikaren ulermen eta garapen hobea ahalbidetuko duten KI-aren alderdi teknikoen argitzea.

Lehenengo kurtsoa programatzen hasiko gara, 2019ko Urritik 2020ko Ekainerarte. Formakuntzaren bigarren kurtsoa programatuko litzateke soilik aurrera eramateko partehartzaile kopuru minimoa egon ezker.

NON

JANIA c/ Costa 8, 4º izq Bilbao (formakuntzaren egoitza nagusia) [kokapena](#)



CRISÁLIDA c/ Bailén 5 ,bajo Bilbao kalea (lehenengo asteburuaren egoitza) [kokapena](#)



DATAK

2019 /2020

Urriak 5 - 6

Azaroak 2-3

Azaroak 30 / Abenduak 1

Urtarrilak 11-12

Otsailak 1-2

Martxoak 7-8

Apirilak 4-5

Maiatzak 2-3

Ekainak 6-7

PREZIOA

Urte osoko ordainketa **990€ / 945€** EHKIEko Bazkideak

Hiru hilabeteko ordainketa **345€ / 330€** EHKIEko Bazkideak

Hileroko ordainketa* **120€ / 115€** EHKIEko Bazkideak

*Hileroko ordainketa aukeratzen duten partehartzaileek, 120€/115€ ko matrikula ordainduko dute eta kurtsoko azkenengo modulua ez ordaintzen berreskuratuko lukete. Inoiz ere ez litzateke matrikulen dirua bueltatuko.

PREZIOA (Aurretik formakuntza egin duten ikasleentzat)

Gutxienez 5 modulu egiteko aukera daukate, gutxienerako horrekin prezioak hauek izango lirateke:

5 moduluen ordainketa **550€ / 525€** EHKIEko Bazkideak

Hiru hilabeteko ordainketa **345€ / 330€** EHKIEko Bazkideak

Hileroko ordainketa* **120€ / 115€** EHKIEko Bazkideak

Aurretik formakuntza egin duten ikasleek berriro formakuntza OSOA egin nahi ezker, modulu bakoitzagatik 90€ ordaindu beharko lukete.

Urte osoko ordainketa **855€ / 810€** EHKIEko Bazkideak

Hiru hilabeteko ordainketa **285€ / 270€** EHKIEko Bazkideak

Hileroko ordainketa* **95€ / 90€** EHKIEko Bazkideak

*Hileroko ordainketa aukeratzen duten partehartzaileek, 95€/90€ ko matrikula ordainduko dute eta kurtsoko azkenengo modulua ez ordaintzen berreskuratuko lukete. Inoiz ere ez litzateke matrikulen dirua bueltatuko.

Partehartzaile faltagatik formakuntza aurrera ez atera ezkerro, moduluen eta matrikulen ordainketak bere osotasunean bueltatuko lirateke.

PERTSONA KOPURUA

Gehienez 20 pertsona

Modulu guztiak egingo duten partehartzaileek lehentasuna izango dute.

BERTARATZE BALDINTZAK

Formakuntzaren partehartzaileek **modulu guztiak ordaintzera** hitzematen dute.

Gehienez hiru moduluetara ezin joatekotan, bi aukera emango dira:

1. Ikasleek berreskuratu ahal izango dute modulua/ dituzte moduluek 2020-2021eko kurtsora aurkeztuz (Soilik eta Bilboko formakuntzaren 1.go kurtsoko talde berria sortuz gero)
2. Ikasleek modulua/ak berreskuratzeko aukera izango dute Madrilen urtero egiten den formakuntzan.